

# *ttipi-ttapa*

1993.eko Ekainak 3

111. zenbakia

dohain banatzen da




**MENDIA**

**LAGUN ONEN TOPALEKU**



# Horiek, agian, ez dute Euskal Hiztegi Entziklopedikoaren beharrrik, eta zuk?

- Lehenengo Euskal Hiztegi Entziklopedikoa.
- 9.000 euskaldun hitzarturik obra honetan harpidetzaren bitartez.



Obra honi buruz **informazio gehiago** jaso nahi nuke, bestelako konpromezurik gabe.

Izen abizenak .....

.....

Helbidea .....

Herria/Localidad ..... P.K. ....

Lanbidea .....

Tel. ....

Moztu eta beheko helbidera bidal ezazu.

LUR argitaletxea • Usandizaga kalea, 17 • 20.001 - DONOSTIA

# non - zer

**4 AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.

**7 HONTAZ ETA HARTAZ**

**8 IRAKURLEAK MINTZO**

**9/28 HERRIZ HERRI**

Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarana, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...

**29 KIROLAK:** Baztan futbol taldea: Berriz ere Nafarroako hirugarren mailara

**30 ERREPORTAIA:** Kontsumitzaileen eskubideen defentsan, 'Iratxe' kontsumitzaileen elkarteak Baztanen eta Leitzaan eskeiniko ditu bere zerbitzuak hilabetero bi egunez.

Joxemanuel Irigoien

**32 ELKARRIZKETA:** «Gailurrera iristean sentitzen duzuna ezin da hitzez esplikatu» Angel Trantxe mendizalearekin solasean.

Aitor Arozena

**34 MERKATU TTIKIA**

## ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85  
Tirada: 5.400 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1  
31780 BERA  
Tfnoa.: 63 11 88  
Faxa: 63 12 91

**Erredakzio arduraduna:** Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karnele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Patxi Larretxea, Pello Apezetxea, Edurne Rekondo, Bittori Telletxea **Ale honetan parte hartu dute:** Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Marta, Mirari, Txema Aldabe, Ixabel, Josune, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Pello Etxegia, Daniel Martiarena, Txema Urrotz, J. Igarabide, Pablo Mendiburu, Juana Mari, Mixel, Jacqueline, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi eta Mattari-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernuua....



**Inprimategia:** Gertu Kooperatiba Elkarte (Oñati)

*ttipi-ttapa* aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.



# Horiek, agian, ez dute Euskal Hiztegi Entziklopedikoaren beharrrik, eta zuk?

- Lehenengo Euskal Hiztegi Entziklopedikoa.
- 9.000 euskaldun hitzarturik obra honetan harpidetzaren bitartez.



Obra honi buruz **informazio gehiago** jaso nahi nuke, bestelako konpromezurik gabe.

Izen abizenak .....

.....

Helbidea .....

Herria/Localidad ..... P.K. ....

Lanbidea .....

Tel. ....

Moztu eta beheko helbidera bidal ezazu.

LUR argitaletxea • Usandizaga kalea, 17 • 20.001 - DONOSTIA



# non - zer

- 
- 4 AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
- 
- 7 HONTAZ ETA HARTAZ**
- 
- 8 IRAKURLEAK MINTZO**
- 
- 9/28 HERRIZ HERRI**  
Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarana, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
- 
- 29 KIROLAK:** Baztan futbol taldea: Berriz ere Nafarroako hiru-garren mailara
- 
- 30 ERREPORTAIA:** Kontsumitzaileen eskubideen defentsan, 'Iratxe' kontsumitzaileen elkarteak Baztanen eta Leitzaan es-keiniko ditu bere zerbitzuak hilabetero bi egunez.  
Joxemanuel Irigoien
- 
- 32 ELKARRIZKETA:** «Gailurrera iristean sentitzen duzuna ezin da hitzez esplikatu» Angel Trantxe mendizalearekin solasean.  
Aitor Arozena
- 
- 34 MERKATU TTIKIA**
- 

## ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85  
Tirada: 5.400 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1  
31780 BERA  
Tfnoa.: 63 11 88  
Faxa: 63 12 91

**Erredakzio arduraduna:** Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Patxi Larretxea, Pello Apezetxea, Edurne Rekondo, Bittori Telletxea **Ale honetan parte hartu dute:** Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Marta, Mirari, Txema Aldabe, Ixabel, Josune, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Pello Etxegia, Daniel Martiarena, Txema Urrotz, J. Igarabide, Pablo Mendiburu, Juana Mari, Mixel, Jacqueline, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi eta Mattari-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernuua....

**Inprimategia:** Gertu Kooperatiba Elkartea (Oñati)  
*ttipi-ttapa* aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

**Beharrezko telefonoak**

SOS Nafarroa /Urgentziak...088/061

**OSASUN ZENTRUAK**

Elizondo.....452367 / 580235  
 Doneztebe ..... 450300  
 Lesaka.....637428/637336  
 Leitza .....510248 / 510573

**KONTSULTAK**

Arizkun ..... 453039  
 Gartzain ..... 580451  
 Oronotz-Mugaire ..... 592024  
 Ituren ..... 450183  
 Sunbilla ..... 450283  
 Goizueta ..... 514067  
 Igantzi ..... 637755  
 Arantza ..... 634131  
 Bera..... 630929 / 630036  
 Etxalar.....635105  
 Urdazubi.....599130

**ANBULATORIOAK**

Irun ..... 630264/621106

**OSPITALEAK**

Irungo ospitalea ..... 614600  
 Nafarroako ospitalea ..... 102100  
 SSKo urgentzi zerbitzua ..... 246750  
 Virgen del Camino  
 erresidentzia ..... 109400  
 Gurutze Gorria ..... 226404

**ANBULANTZIAK**

Oitz ..... 450242/450805

**DYA**

Lesaka (larrialdiak).....(943) 464622  
 Doneztebe (larrialdiak).....171717

**FUNERARIA**

Lesaka.....637404  
 Elizondo .....580924

**SUHILTZAILEAK**

Oronotz-Mugaire ..... 592044

**GARRAIOAK**

Bidasotarra ..... 630279  
 Baztanesa ..... 580129  
 Leitزارan ..... 515018

**HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:**

Elizondo ..... 580730  
 Lesaka ..... 637154  
 Bera ..... 630261

**ABERIAK:**

Iberduero ..... 450335/450336

**W Botikak**

► **Ekainaren 5-6an,** Bera, Doneztebe eta F. Lezaun (Elizondo).

► **Ekainaren 12-13an,** Arantza, Ituren eta J. Iturralde (Elizondo).

**W Deiak**

► **BERA,** ekainaren 9an, asteazkena, arratsaldeko 8etan LAINOPE Ingurugiro Taldearen bilera Gure Txokoan.

**W Dantzaldia**

► **LESAKA**  
 Ekainaren 6an, arratseko 7.30etan DRINDOTS taldearekin eta ekainaren 13an, ordu berean, ANKER taldearekin.

**► ELIZONDO**

Ekainaren 5ean, gaueko 12etan ARKAITZ taldearekin.

*Antolatzailea:* Baztan futbol taldeko jokalaririk.

**► ALTZATE (BERA)**

Ekainaren 5ean, gaueko 10etan NAHIKO taldearekin.

**W Bestak****► MENDAUR****TRINITATE EGUNA**

Ekainaren 6an Mendaurrera erromeria. Meza ohizko orduan eta bazkaria urtegi.

**► ALTZATE (BERA)**

Ekainaren 4. 5 eta 6an. (Ikus xehetasunak 9. orrialdean)

**► ALMANDOZ**

Ekainaren 9tik 13ra. (Ikus xehetasunak 23. orrialdean).

**W Bota bertsoa****Saioa MITXELENA**

Bortzirietako Bertso Eskolakoa

**Gaia:** Azterketak**Doinua:** Peñgarikanorena

Lanan emaitzak erdi urduri jada jarri gaitu denak egun hauexek izaten dira urte guziko txarrenak ikasi gabe aprobatu nahi alperren itxaropenak maixu zorrotzen eztenak gorritz beterik txostenak (bis) emaitzak nola izango diran urduri denen barrenak orain azaldu beharko dira gure pozak eta penak (bis).

Urte osoa liburuakin ez da gauza atsegina nahi ez duguna sarri aurrean horrek ematen du mina ta bi egunez emaitza denak errealitate gordina atera behar da grina dugu azken alegina (bis) urte guztia saiatzen eta orain gainditu ezina ikastea ta aprobatea ez bait da gauza berdina (bis).

# AGENDA

## Lehiaketak

### ▷ ETXALAR

#### II. ALTXATA GASNA LEHIAKETA

Ekainaren 13an, igandea, goizeko 11etan, Baztan, Bortziriak, Leitzaldea eta Malerrekan bizi diren artzai edo gasna egileei zabaldua. 12,30etan bertso saioa, Estitxu eta Manolo Arozena, Amaia Telletxea eta Bittor Elizagoien bertsolariekin. Ondoren, Kastora Agestari omenaldia eta herri bazkaria trikitilariekin.

**Antolatzailea:** Altxata Kultur elkarte.

## Kontzertuak

### ▷ GOIZUETA

#### KOJON PRIETO

Ababache y los Huajolotes

Ekainaren 5ean, gaueko 11etatik aurrera. 'Arte eta Kultura' kanpainaren barnean.

## Gastronomia

### PIKANTONAK

#### Osagaiak 4 lagunendako:

Bi pikanton, tipula, azenarioa, baratxuria, 2 sagar eder, porrua, perrexila, ozpina, ardo txuria (markakoa), wiskitxorrotada bat eta haran pasak.

Garbitu pikantonak eta lotu ongi. Eltze batean olio,



M<sup>a</sup> Dolores BALLARENAK  
emana - ERRATZUko Ostatua

barazki guztiak ongi xehe-tuak eta pikantonak jarri, su

dexente batean. Kolorea hartu duenean, ozpina, ardo txuria eta wiskia bota. Berotzen denean eman sua wiskiaren alkohola erretzeko. Suan bi ordu egon denean pikantonak atera, erditik moztu eta bertze kazuela batean jarri. Barazkiak pasapurean pasatu eta utzi pikantonen gainean dena berriz berotu arte. Zerbitzeko haran-pasak eta perrexila bota gainetik.

## Baserriko feria



### ▷ ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilokoa): 3.600 pzta. **Zerri gizona** (95-100): 163 pzta/kilo **Zerramak**: 60-80 pzta./kilo bizirik.

### ▷ BEHIKIA

•Aretze gizenak:  
**Idixkoak**: Pzta/kg. Kanal  
Extra.....570  
1.koa.....540  
2.koa.....520

**Urruxak**: Pzta/Kg. Kanal  
Extra.....585  
1.koa.....555  
2.koa.....535  
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

### •Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 370 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 420-450 Pzta./Kg. Ka-

nal.

### •Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

**Nabarrak**: urruxak 18.000 artean eta idixkoak 32.000 Pzta. artean.

**Mestizoak**: urruxak 32.000 artean eta idixkoak 44.000 Pzta. artean.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa

## J. M. ANDUEZA

### × Sua mozteko atea

- Metalikoak
- Egurrezkoak
- Kristalezkoak
- Korrederak.
- Segurtasunekoak

### × Garajerako edozein motatako atea, neurrira eginak

- Automatikoak eta eskuz ireki beharrekoak

Tfnoa eta Faxe: 630854 - **BERA**



- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinu,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...

## W 11 galdera Ilabur



### ► Rosa Irazoki

Berako Labe-zar okindegikoa

- Ogi puxka bat ala pastela? Ogia.
- Karrikan pintadak ala kartelak? Kartelak.
- Nork irabaziko du hauteskundetan? Biak pare eginen dute.
- Mediku euskalduna ala berdin zai-zu? Euskalduna.
- Oporretan norat? Ez dut denborarik oporrak hartzeko.
- Herriko jendea ala kanpokoia etortzen da gehiago? Herriko jendea.
- Igandetan jende aunitz etortzen da? Bai, normalean baino gehiago, bertzeak itxia dutelako.
- Ze egunkari irakurtzen duzu? Ez dut irakurtzen.
- Aukeratzekotan, ze lan aukeraturiko zenuke? Saltzailearena.
- Supermerkatuak ala denda tikiak? Denda tikiak, tratua hobea delako.
- Gustokoa duzun plater bat? Txipiroiak.

## W Zinema



### ► The Piano Jane Campion Zelanda Berria-93

Bukatu berria den Canneseko festibalean lehen saria irabazi du Zelanda Berriko emakume honek bere hirugarren filmarekin. Hirurogeigarren hamarkadako feminismoaren alaba dela dio. Bere filmetako pertsonaietan nabaria da. Aintzineko lanetan, oraingoan bezala, familia barreneko emakumeen paper etsituaren ezina aztertzen digu Jane Campionek, ikuspuntuezberdinetatik.

Australiako zinema berria interesgarria izan da azken urte



Jane Campionek Zelanda Berriko zinema ezezaguna aurkezten digu bere azken filmean

hauetan. Zelanda Berrikoa aldiz, orain arte ezezaguna gure artean.

Zuzendari honen etnologia ikasketak nabarmenak dira, filmean agertzen diren «maori»en tatuaiengatik, batez ere. Munduko leku galdu batean gertatzen den maitasun is-

torioa da. Ada emakume mutua, senar berri baten bila joan beharrean dago, 9 urteko alaba eta pianoarekin, horiek baitira bere komunikabide bakarrak. Piano garrai ezinak bere bizilagun batekin erlazio berri bat sortzen dio. Zeinu eta

konportamendu kodigo berri aunitz ditu. Galera sentimenduak edertasunean indartu egiten ditu Jane Campionek filme komendagarri honetan. Baionan Vanban zinemari ikus daiteke filma hau.

MARIANO

## TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa: 45 04 91

## OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

## ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa  
Altzate 28 - BERA

## LEGARRA

PAPERTEGIA  
TABAKOAK  
LIBURUAK  
OPARIAK

LIBURU ETA DISKOETAN % 25eko DESKUENTOA

Legarra 9, Tfnoa: 637030 LESAKA





**Gas-naturalak**  
Bera eta Lesakako zenbait lantegi hornituko ditu denbora guti barne. Hodiak edo tuboak Bera eta Lesakako eremutan sartzen hasiak dira azken asteotan.

## Bertizko Turismo Konsortzioaren enplegu deialdia

Bertizko Turismo Konsortzioak, administrari bat kontratatu nahi du egun erdiz enplegatzeko. LH II administrari titulua eta EGA edo titulu baliakideren bat izatea nahitaezkoa da.

Lan eskariak ekainaren 10a bitarte aurkeztu

ahal dira Doneztebeko INEMeko bulegoetan, eta eskariarekin batera Curriculum-a eta aipatu titulu akademikoen jabe izatea baieztatzen duten agiriak ere eraman behar dira.

Azterketa frogari INEM bertan egingen da.

## Logotipo lehiaketa antolatu dute Bortzirietako Euskara Batzordeek



Parean ageri den logotipoa, Bortzirietako Euskara Batzordeek orainarte zeukate-na da.

Lehiaketa honetan aurkeztutako lanak logotipoak izan behar dute, hau da, lanek "Bortzirietako Euskara Batzordeak" testuarekin zerikusia izan behar dute. Lanak, xuri beltzean egindakoak izan behar dute eta ekainean zehar aurkeztu behar dira honako helbide hauetara bidali edo eramanez: *Bortzirietako Euskara Batzordeak, Arantzako*

*Herriko Etxea, 31790 Arantza edo ttipi-ttapa, Berako Herriko Etxea, 31780 Bera.* Lanak sobre batean sartuko dira eta bertze sobre batean egilearen datuak, hau da, izen-abizenak, helbidea eta telefonoa. Eraberean, bi sobreen kanpoko aldean ezizen bat agertuko da. Saria, bi lagunentzako afaria izanen da Igantziko 'La Villa' jatetxean.

### INFORMAZIOA:

- ☞ Nominak
- ☞ Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-kontratu bonifikatuak
- ☞ Enpresa berrien sortzea
- ☞ Diru-laguntzak
- ☞ Errenta Deklarazioak
- ☞ Kontabilitateak

## ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

### LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non:** MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

### IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



## MONTERROXOKO GARTZELATIK

Aupa herkide maiteok:

Aspalditik ikusi gabe, ezta? Bainatira, zorionez beti nere gogoan zaudete eta zuen indarra eta animoei esker segi dezaket, bertze euskal preso guzietan batera, bizirik eta tinko 'etxe' madarikatu honetan.

Maiatzaren 15a egun goibela izan zen benetan, Frantziako espetxe batean Pello Mariñelarena hil zai-

gu. Hil dute. Ez dirudi, ordea, zerrenda luze horren azkene-ko izena izanen denik. Guzi honek borrokaren gordintasuna erakusten digu berriz ere, Euskal Herriak nozitzen duen arazoa ez dela konpondu oraindik, alegia. Beren min- gain pozointsuetatik maizegi entzuten dugu presoen egoerari buruz gezur eta zikinkeria nahiko. Eta ez dirudi lotsatzen direnik. Halako jendilagearekin... zer nahi dugu! Eta zer

egin dezakegu? Hagin zorrotzak erakutsi, bertzerik ez digute uzten nazkagarri hoiek! Gartzelan, egia erran, txori kaiolatu bezain gautza 'gutxi' izan gaitzke, bainan kaso! erraten den bezala, 'Txoriak ere, duen odol guzia ematen du'.

Astelehenean hasita, presook gose grebari ekinen diogu, gure haginak zorrotz dirautela zenbait gezurterori erakusteko. Autodeterminazio eskubidea da gure

aldarrikapena eta zuen elkartasunari esker Euskal Herrian ere entzunen dira gure borrokaren oihartzunak. Euskal Herriaren iraupena dago jokuan.

Laister sasi-hauteskundeak, 'a la americana' direla eta, hortxe ibiliko zarete jo ta ke kanpainen. Nahiz eta gureak ez izan, ekin behar diogu zeren etsaiari kosk egiteko aukera galanta eskaintzen bait digute, bai alajaina! Nik ezin izanen dut botu hori

eman, baina ziur nago nere partez norbaitek egingen diola autsiki etsaiari HBri botua emanta, eta ez botua soilik, eguneroko bizian ere erakutsi behar dugu hagin zorrotzak ditugula, gure etxearen jabeak izatera ailegatu arte.

Adorea galdu gabe agur eta eutsi gogor.



Joxelu Etxeberria  
Monterroxo  
(Lugo)

## SAROBÉ okindegia



**SANDERS Pentsuak**  
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA



Legia 11 - 63 06 64 BERA



**KIROLAK ZELA**  
Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98  
BERA

## Masaia eta bizkortze ariketak

**Txomin Irazoki (Fisioterapeuta)**

Astelehen, asteazken eta ortziraletan, 15,30etatik aintzinera  
Astearte eta ortzegunetan, 9,30etatik 13etara eta 14,30etatik aintzinera  
Eztegara 24, Tfnoa: 63 13 91 - BERA



© 631076 • BERA



## MOLINERO PINTURAK

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen araberako prezioetan.

Eztegara 19 - ☎ 63 02 40  
BERA

## EKAITZA OSTATUA

PUY

Altzate - BERA

### Altzateko bestak asteburu honetan ospatuko dira

Rugby taldeko gaztetxoek bertzalde, Nafarroako selekzioan parte hartzen dute

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Ortziraletik igandera luzatuko diren besta haue-  
tan kirol probak eta mu-  
sika izanen dira nagusi.  
Dena dela, hona zeintzuk  
diren ekitaldirik aipaga-  
rrienak: **ortziral** gauean  
musika jaialdia Altzateko  
frontoian «Zup», «Noise  
Hole» eta «Kojon Prieto y  
los Huajolotes» taldeekin.  
**Larunbat** eguerdian erral-  
doiak eta buruhaundiak eta  
arratsaldean txirindula  
proba eta dantzariak.  
Gauetz dantzaldia Altzate-  
ko Plazan «Naiko» taldea-  
rekin. **Igandean** emanen  
zaie bukaera bestei eta  
eguerdiko 12etarako pilo-  
ta partiduak iragarriak  
daude. 2etan Herri Bazka-  
ria eta arratsaldeko 7etan  
Herri Kirolak, bertsolariak  
eta trikitilariak Altzateko  
Plazan. Arrats partean, 9ak  
aldera, suzko zezena.



Argazkiak: GOIKO

### Rugbyak badu harrobirik Beran

Jubenilak, Infantilak eta kadeteak akautu berria den Nafarroako Jolas Kiroletan lehen saria lortu dute, bakoitzak bere kategorian, eta nesken taldeak berriz, bigarren postua. Infantil eta kadeteetako zenbait jokalarik, gainera, Nafarroako Selektzioarekin ari dira jokatzeko orain. Duela bi asteburu, bertzalde, haundienek «Ibardingo Torneo»aren hirugarren edizioa antolatu zuten eta Bera-Bera, Arrasate, Irun, Getxo eta Urruñako Rugby taldeekin batera jokatu ere.

### W ttipi-flash

- **Isidoro Fagoaga** sortu zeneko lehen mendurrena ospatzeko, kontzertu zikloa antolatua du Berako Musika Eskolak. Lehen audizioa joan den ortziraletan eman zen Kultur Etxean.
- **Ibardingo** ur-zikinen depuradora berria funtzionamenduan sartua da.



## GOYA

JOSTAILUAK  
JANTZIGINTZA  
OPARIAK  
BURDIN TRESNERIA  
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

## TXOKOA OSTATUA

- × Eguneko menua
  - × Asteburutan, kaxuelak eta karta
  - × Gosari, bazkari eta afariak aintzinetik eskatuta
  - × Pintxoaren espezialduak      × Gazte giroa
- Tfnoa: 630286, Alzate • BERA

## BOAN TAILERRA



CITROËN Banatzailea

KOTXE BERRIEN  
ERAKUSKETA ETA SALMENTA  
Herriko Etxeko Plaza - BERA

## GRUPO ZURICH



ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

## Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA



LESAKA

**Bakarrik PNVren botuekin onartu ziren udal aurrekontuak**

EA eta HB haserre, aurrekontuak aztertzeko hogeitalau ordu baino guttiago izan zutelako

AITOR AROZENA

PNV bakarrik gelditu zen aurtengo udal aurrekontuak onartzerakoan. HB eta EAk euren haserrea agertu zuten, hogeitalau ordu baino guttiago izan baitzuten aurrekontuak aztertzeko eta HBkoek pleno aretotik aldegin zuten botorik eman gabe. EAk, bere aldetik, aurrekontuen kontra eman zuten botoa, PNVk egiten ari duen gestio ekonomikoa desastre bat dela erranez eta honek herrian izugarritzko zorrak sortu dituela gaineratuz.

Alkateak berriz, pleno aintzinetik aurrekontuak presentatzeko inolako obligaziorik ez dagoela eta kontu guztiak publikoak direla adierazi zuen.

Beraz, aurtengo udal aurrekontua 438.134.575 pezetakoa izanen da, inork alegaziorik aurkezten ez baldin badu behinpein.



«V. Ezagutu Dezagun Lesaka» lehiaketan 119 neska-mutikok parte hartu zuen

Argazkia: AITOR

**«X. Txoko-Txiki» bertso eta ipuin lehiaketaren sari banaketa burutu zen joan den ortziralean**

Maiatzaren 28an eman ziren Tantirumairu ikastolak udalaren laguntzaz antolatu duen X. Txoko-Txiki bertso eta ipuin lehiaketaren sariak. Ipuinetan, goi zikloan, Aitziber Irazoki eta Jokin Rodriguezek eskuratu zuten le-

hen saria, 5 eta 4. mailan Asier Etxepetelekuk eta 2. eta 3. mailan Mikel Rodriguezek. Bertsoetan, goi zikloan Alaitz Re-kondo izan zen txapeldun eta erdi zikloan Aritz Al-tzugarai. 'Pipergorri' al-dizkaria ere banatu zen.

- ☐ **Rafa Maritxalar** lasterkalari lesakarrak 1.500 metroan Nafarroako errekor berri bat ezarri du 'promesas' mailan: 3'51".
- ☐ **Euskalerriko** bertsolari gaztetxoan V. txapelketa burutuko da hilaren 4ean.
- ☐ **Jesus M<sup>o</sup> Calvo** ETB-2ko 'Estrellas en juego' saioan aterako da larunbat honetan, 3etan.

ARRANO



OSTATUA

Legarrea - LESAKA

LORA DENDA



bitxikeriak • opariak • eskulangintza

XATURETXEA

FONDA

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

ARRATZUBI  
ardotegia

Tfnoa.: 63 72 79  
Bittiria karrika - LESAKA

IRUBIDE

OSTATUA  
ERRETEGIA

Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

KOSKILLA

OSTATUA

Larunbatetan  
mus txapelketak  
sari ederrekin

Zarandia 4 - LESAKA



## Bi herritarri giltzurdin trasplantea egin berri diete

Ebakuntza arazorik gabe burutu zen eta biak ere etxean daude honez gero

ANABEL eta ALBERTO

Maiatzean, bi herritarrek, Etxeberribereko Martin Sansiñena eta Sarrietako Frantxiska Olagaraiak, giltzurdin berria hartu dute hondatuta zeukatena utzita. Bazeramazkiten urte batzuk, beren giltzurdinen bete beharra makinaz egitera ospitalera joanez, eta bertze norbaiten giltzurdina erregalotako noiz eskeiniko zieten zain. Iaz izan bazuten ere lehen deia horretarako, oraingoan bihurtu da egia aspaldiko ametsa, Iruñeko Klinika Unibertsitarioan Martinena eta Bilboko Gurutzeta ospitalean Frantxiskarena. Etxean biak, hagitz ongi daude.



Etxeberribereko Martin Sansiñenak Iruñeko Klinika Unibertsitarioan eta Sarrietako Frantxiska Olagaraiak Bilboko Gurutzeta ospitalean giltzurdin berria hartu dute hondatuta zeukatena utzita



### Iñaki Perurena etorri zen

Maiatzaren 11n, Iñaki Perurena, orain arte harrijasotzaileen erregea izan dena, gure herrira etorri zen. Igantzi, Arantza eta Etxalarko eskolek antolatutako emanaldi honetan, hiru herri hauetako gaztetxoak izan ziren ikusleak. Hamaiketan ailegatu zen Perurena gure herrira, eta frontoian, haurren galderei erantzun ondoren, lanean hasi zen. Bi harri altxatu zituen, 205 kiloko koa-drangularra eta 100 kiloko zirkularra. Gaztetxoek ere, 38 kilo zeuzkan harri bat altxatzeko aukera izan zuten.

### Aitzpe Jatetxea

Gehienok jakinen duzue, honez gero, Goikolanda auzoan jatetxe bat egiten ari direla. Aitzpe

izena emanen diote, eta hemendik 2-3 hilabetetara idekiko da. Bazkaltzeko nahiz afaltzeko aukera berria izanen da herrian.

**LAINO**  
LIKIDAZIOAK  
San Esteban 37, Tf: 631063 - BERA

**EKAITZA CAFE**  
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA  
Lagunekin elkartzeko toki egokia  
Tfa: 948 - 627547  
Plaza Berria 13 - LESAKA

«U S O A»  
NEKAZARI KOOPERATIBA  
Ganaduarentzat pentsurik egokiena  
Tfnoa: 63 52 14  
**ETXALAR**

**EROSLE**  
LESAKA  
Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena  
Frexkuena zugandik hurbilago  
Bittiria 67 - Tfnoa: 637264

**KOXKONTA**  
Sagardotegia ZABALIK  
Deitu erreserbak egiteko  
Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

**FOTO MENA**  
ELIZONDO  
Komuniotako erreportaiak argazkiak eta bideoa  
Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40 ELIZONDO  
Eta orain, zure koloretako argazkiak  
**ORDU BATEZ ERREBELATUAK** ditugu

IGANTZI

**Pala txapelketan izen emateko epea igandean akituko da**

Bertzalde, baserrien izenen kartelak paratzeko proiektua onartu du Udalak

OSKAR TXOPERENA

Pala txapelketan jokatu nahi izanez gero, ekainaren 6rako eman beharko da izena Biltokin hiru maila hauetako batean: gizonetzkoak 1. eta 2. eta emakumezkoak.


□ Ekainaren 6an, boto egunean, horra nor egonen den mahaian: M<sup>st</sup> Jose Arburua lehendakari lanetan eta Lourdes Zugarramurdi eta Josune Iguzkiagirre bokal bezala.

□ Banatu zaizkie **jubilatuei** San Juan eguneko bazkarian parte hartzeko txartelak. Badakite beraz, joan nahi dutenak, ekainaren 13a baino lehen bidali beharko dituztela Biltokira.



San Isidro egunez ezkondu zen Elena Etxarte. Zoritxarrez, bera ere kanpora doakigu bizitzera.

Maiatzaren 17an izan genuen Aralarko Mikel Donearen bisita  
Arg.: OSKAR



□ ETB, Fraingo antena berritik zuzenean ikusten dugunez, udalak onartu egin zuen lehengo tresnak erabiliz A-3 eta Tele5 paratzeko teknikoak aurkez-

tu duen aurrekontua. Tele5 ikusten bada dagoeneko, A-3 laister ikustea espero da. Udalak onartu du baita ere, baserrien izenen kartelak paratzeko proiektuak.

Kartel bakoitzak 7.000 pezeta balio du eta udala, Nafarroako Gobernua eta baserritarren artean ordainduko da.

**ETXEGARAI  
BIDEO KLUBA**

Telebista eta Bideoak  
Antena kolektiboak eta  
banakakoak  
Konponketa tailerra

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA

**LANCHAS**

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Zurezko zoletan nahi duzuna

Tfnoa: 630735 - BERA Tfnoa: (943) 622305 - IRUN



**ORDOKI**

**ALTZARIAK**

Estilo guztietako mobleak

ERAKUSKETAK:

Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALMENTAK: Plaza Zaharra 27

Tfnoa: 637034 - LESAKA

Larunbat  
arratsaldetan  
zabalik



**KATTU**

OSTATUA  
JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • LESAKA



UDABERRIKO KULTUR EGUNAK  
93  
ETXALAR

**EKAINAK 11**

- 7,30etan *Hitzaldia - diapositibak*  
*Brigada baten esperientzia Kuban – Askapena*

**EKAINAK 13**

Egun osoan *Bertako produktuen salmenta eta Oihal Artisauen Erakusketa*

- 11etan 2. ALTXATA GASNA LEHIAKETA

- 12,30etan *Bertso saioa*

ESTITXU ETA MANOLO AROZENA

AMAIA TELLETXEA ETA BITTOR ELIZAGOIEN

- 13,30etan KASTORA AGESTAri OMENALDIA

- 2etan *Sari Banaketa* eta *Gasna Sarituen Subasta*

- 2,30etan *Herri Bazkaria*

Trikitilariak

**EKAINAK 20**

HAURREN EGUNA

Eskulan Erakusketa • Ipuin Lehiaketa

Bazkaria • Antzerkia

## 2. ALTXATA GASNA LEHIAKETA

BAZTAN / BORTZIRIAK / LEITZALDEA / MALERREKA

Etxalarren, ekainaren 13an, Igandea, goizeko 11etan

### LEHIAKETAREN OINARRIAK

- 1.- Baztan, Bortziriak, Leitzaldea eta Malerrekan bizi diren artzai edo gasna egileek parte har dezakete.
- 2.- Ardi gasna txapelketa da. (60 egun baino gehiagoko gasnentzat).
- 3.- Egile bakoitzak gasna bakarria aurkez dezake.
- 4.- Gasna bakoitzaren truke 1.300 pzta. emanen da.
- 5.- Gasnak ekainaren 13an, 11ak baino lehenago ekarri beharko dira Etxalarko Pilota plazara.
- 6.- Sariak: 1.- 20.000 pzta eta trofeoa  
2.- 15.000 pzta eta trofeoa  
3.- 10.000 pzta eta trofeoa  
Etxalarko 1.ari 8.000 pzta.
- 7.- Gasnak, lehiaketa honen antolatzailen esku geldituko dira.

Informazio gehiago **63 50 20** Telefonoan

**OHARRA:** Nahi izanez gero, gasnak eta bertako produktuak ekar daitezke plazan saltzeko.

Laguntzaile:

**GAN NAFARROAKO AURREZKI KUTXA**

ARANTZA

Mediku kontsultaren ordutegia aldatu da


Bertzalde, eskolako neska-mutikoak alde batetik bertzera hasi dira ekursiotan

MIRARI eta MARTA

Hemendik aintzineraz medikuaren kontsulta goizeko 9'30etatik 11etara izanen da. Horrela bada, goizeko 9etatik 9'30ak arte ordua hartua dutenekin egonen da medikua, 9'30etatik 11etara kontsulta normala pasatuko du eta 11etatik Igantziko kontsultara joan bitarte etxean erri daudenak bisitatzera joanen da.

Ekursioen garaia

Denak elkar hartu izan balute bezala, herriko hainbat neska-mutiko ekursioan joanak dira edo laister joateko asmotan. Eskolako 7. eta 8. mailakoak aste betez Bartzel-



Pantaleon Errandonea sartu da Josetxo Larretxeak utzitako kontzejal postuan.


Artxiboa

lonan izan dira. Haurrak, ekainaren 7,8 eta 9an Hondarribian egotekoak dira kanpaldian eta katekesisako ikasleek ere eskurtsioa izanen dute larunbatean.

Gaizka, Estitxu eta Maixe berriz, Lesakako akordeolari bandarekin Pariseko Nazioarteko lehiaketara joan ziren, lehen saria irabaziz gainera.

ttipi-flash

- Josetxo Larretxeak kontzejal kargua utzi ondoren, Pantaleon Errandonea sartuko da bere ordeaz.
- Amaia Telletxea Nafarroako eskolarteko bertso txapelketaren finalean aritu zen Iruñean, maiztaren 28an. Aitorrek ezin izan zuen finalean sartu.
- Komunioak ekainaren 13an egingen dira, Bestaberri egunean.
- Ekainaren 6ean berriz, Ternida edo Trinidad eguna ospatuko da. Urtero bezala, Arantzatik ere jende dexente hurbilduko da Mendaur aldera.



MALDAERREKA S.A.

«La Suiza» Aseguro mota guziak

Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESAKA

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 BERA

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



ERRO BIDAIK

BIDAI AGENTZIA G.A.T. 2.015

- ✕ HERRIAK
- ✕ MENDIAK
- ✕ TURISMOA
- ✕ TREKING eta BIDAI ALTERNATIBOAK

ADUANAKALERA, 5

☎ 943 - 615177

☎ 943 - 619489

FAX 943 - 619517

20.300 IRUIN



\* TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa

\* Bakarkako, kolektibo edota satellite bidezko antenak ere paratzen ditugu.

Itzea 4, behea - BERA Tfnoa: 63 10 91



## Sunbillako saihesbidea estrenatzeko puntu-puntu


Seguruenik hilabete honen 15erako trafikora irekia egonen da

IXABEL eta JOSUNE

Antza denez eguna zehaztea ezinezkoa da momentuz, baina nolahi ere hilabete honen erdialderako trafikora irekia egotea segurua omen da. Bi urte exkas behar izan dira lur pila ederrak mugitzeko eta bortzahun metro baino gehixeago duen tunela eta bere sarrera irteerak egiteko.

Jose M<sup>a</sup> Hernandorena alkateak adierazi digunez, bariantea irekitzen denean segida emanen zaie zubi berriaren sarrerak antolatzeke lanei, izan ere obra horiek egin ahal izateko trafikoa moztea beharrezko izanen baita.

*Tunelaren alde batean euriaren ondorioz izan ziren lur erorketen ondorioz, saihesbidearen kostea 1.400 milioi pezetara altxatu dute azkenerako.*



□ **II. Mendi Bizikleta ibilaldia** ekainaren 20an, igandea, goizeko 10,30etan hasiko da eta joan den urtekoaren gisako ibilaldia izanen du. Parte hartzeko irteera ordua baino 15 minutu lehenago eman be-

harko da izena Ulibeltzak elkartearen eta 500 pza. ordaindu. Kaskoa eramatea beharrezkoa da. Bukaeran hameketakoa, sariak eta opariak.

□ **VII. Paleta Goma Txapelketari** maiatzaren

22an eman zitzaion hasiera eta finalak herriko bes-tetan izanen dira. Ulibeltzak eta Ilurdi elkarteek antolatzen duten txapelketa honetan, aurtengoan ez dago emakumezkoen kategoriarik jokatu.



**SANTAMARIA**

**Jatetxea**

Especialitatea euskal sukaldaritzan  
Eguneko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



**GAZTANDEGIA**

**Etxeko Ardi Gazta**

Petxenekoborda

Tfnoa: 45 08 62

**SUNBILLA**



**CRISTALERIA VELATE**

- Kristaleria orokorrean •
- Barnekaldeen dekorazioa •
- Bainurako mobleak eta manparak •
  - Pareta ispiluak •
  - Bidriera artistikoak •

Proiektuak eta aurrekontuak, konpromisorik gabe

Villaba Etorbidea 12 - IRUÑEA ☎ 132021

Merkatarien karrika 5 - DONEZTEBE ☎ 450991

Pedro Axular 1 - ELIZONDO ☎ 580825

**NATUR ETA ESKU TERAPIA**

**QUIROPRAKTIKA**

*Sendatzeko modu naturala da.*

*Interesatzen bazaizude telefono hontara:*

☎ 45. 16. 42



Inzakardi 3 - 1. A eta B - **DONEZTEBE**

**DONEZTEBE**

**Jubilatuak badute beren txokoa herrian**

Hogeitabi milioiko kostoa izan du eta maiatzaren 22an inauguratu zen

TXEMA ALDABE

Jubilatuak elkartu ahal izateko, Herriko Etxe zaharraren behekaldean osatua, sukaldea, jangela eta bilerak egiteko gela izanen dituen txokoa martxan dago honez gero. Joan den maiatzaren 22an inauguratu zen. Goizez meza eta ondotik bertsolariak eta dantzariak, gero bazkaria (85 lagun) eta akitzeko dantzaldia. Udal ordezkarietz gain, bertara hurbildu ziren Ricardo de Leon Nafarroako Gobernuko Ongizateko kontseilaria eta Juan Jose Lerga, Giza Baliabideen zerbitzuko zuzendaria.

**Sozio izateko urtean 2.000ko pagabeharra** Oraingoz, arratsaldeko 3etatik 8,30etara idekia egonen da, Mitxel Ibarrola eta Nekane biko-



Nekane izanen da Jubilatuen txokoaren arduraduna

TXEMA

tearen ardurapean. Doneztebeko jubilatuetz gain, inguruko jubilatuak eta jubilatuak ez direnak ere sar daitezke. Bazkide egiteko 2.000 pztar urteko ordaindu behar da eta aintzineraren begira eskulanak, gimnasia eta hitzaldiak emateko ere erabiliko da. Xoko honen kostoa 22 milioi pztakoa izan da eta ordainketa horrela egiten da: Nafarroako

Gobernuak 11 milioi, Doneztebeko udalak 9 eta CANek 2.

**Osasunbidean euskaraz...**

kanpainen buru-belarri sartuak gaude. Ekainaren 13a arte sinadurak bilduko dira herri guzietan. Donezteben 15 denda ezberdinetan daude sinatzeko paperak.

**ttipi-flash**

- ❑ **Pala txapelketan** herriko pilotari hoberenak parte hartzen ari dira. Erreka kirol taldeak antolatua da eta finala ekainaren 12 edo 13an.
- ❑ **Ameztiberri** etxe blokeetako jendea kezu da, baten batek zaborrak uhaldera botatzen dituelako oraindik gaur egun. Prolema berehala konpontzea eskatzen dute.
- ❑ **Haurrendako piszina** berria egingen da bertze piszinen ondoan, frontoiaren gibelkaldean. Dirudienez, ekainaren 20rako bukatuko omen da, uztailearen batean bertzearekin batera martxan paratu ahal izateko. Nafarroako Gobernuak eta udalak erdi bana kosteatuko dute 4'5 milioi balioko duen lan hau.



**AGESTA**

**ILEPAINDEGIA ETA ESTETIKA**

- ↳ Aurpegirako eta gorputzerako tratamenduak
- ↳ Makilaia
- ↳ Depilazioa: Argizari hotza eta beroarekin, elektrikoa
- ↳ Manikura, pedikura (*kalloak, gogortasunak*)
- ↳ Masaia: Partziala edo osoa.
- ↳ Elektroeskultura: (*zelulitisa, barizak, hanketan pisua, zirkulazio txarra, likidoen erretentzioa*)
- ↳ Solarium-a
- ↳ Medikuak kontrolatutako tratamenduak Donostian.

Amezitia karrika 10  
Tfnoa: 45 01 36

**DONEZTEBE**

Eskatu **EGUNA** eta **ORDUA**

## Apezenekoborda granjakoak ETBko *Sustrai*a saioan

DANIEL MARTIRENA

Euskal Herriko nekazal mundua lantzen duen ETBko *Sustrai*a saioak, maiatzaren 1 eta 2an legasari protagonistak izan zituen. Telebistako kazetariak beren tramankulu guztiekin herrira hurbildu ziren eta Joxe Antonio eta Inaxio Indartek Apezenekoborda aldean duten granjan gauzatu zuten erreportaia.

Hala ere, pelikula honetako benetazko aktore eta aktoreak piriniar arrazako behi eta zezenak izan ziren, hauen gaur eguneko egoera bait zen programaren ardatza.

Ildo beretik jarraituz, aipatu arraza honetako munduko zezen haundiena Joxe Antonio eta Inaxio Indartek dutela, 1.400 kilotako haragi puska bera.

Zezena, Munduko Abere Azokan egon da ikusgai, Parisen.



*Goikaldeko argazkian, Joxe Antonio eta Inaxio Indart behi bati joarea paratzen. Behitikoan, granjaren ikuspegi bat, behiak fotografoari begira daudela.*

### IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA - MERTZERIA

Parrokia 6, Tfnoa: 45 04 63 - DONEZTEBE

### BELARRA Kafetegia

*Plater kombinatuak*

Amezti 3, Tf.: 45 03 06 - DONEZTEBE



*Beatriz*

ILEAPAINDEGIA

San Miguel, 450922 - DONEZTEBE

- ❖ Ileapaindegirako ordua eskatu
- ❖ Solarium-a
- ❖ kalitateko perfumeak
- ❖ Bitxitegi fina



### AMEZTIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan  
Tf: 450028 - DONEZTEBE

*MariCruz*  
LENTZERIA

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE



ARROPAK

*Zintaren Udaberriko arropa koloretsuak*

San Migel auzoa 27,  
45 08 83 - DONEZTEBE

ITUREN

## Trinitate Eguna ekainaren 6an

IBAN ISASI

Urtero bezala eta aur-  
tengoan hauteskunde egu-  
nean, Trinitate eguna ospa-  
tuko da. Mendaurrera  
goiz goizetik hasiko da  
jendea eta ermitan meza  
betiko orduetan izanen da.  
Bazkaria urtegian (izena  
betiko tokietan eman be-  
har da) eta arratsaldeko  
8etatik goizaldeko 1ak arte  
dantzaldia Izotz taldeare-  
kin.

### Dirulaguntzak

Honako dirulaguntzok  
ematea onetsi zen apirila-

ren 3ko plenoan: Korrika  
eta Nafarroa Oinezi ha-  
marna mila pezeta, DY Ari  
hogei mila eta Xorroxin  
Irratiari 46.138 pzta.

### Euskara zerbitzuaren idatziak

Malerrekako euskara  
zerbitzuak bidalitako pa-  
perak irakurri ondoren ho-  
nako erabakiok onartu zi-  
ren ahobatez: Lehenik  
Euskararen Normalizazio-  
rako aurtengo plangintza,  
bigarrenik aktak euskaraz  
egitea erdarazko laburpe-



Tradizio luzeko erromeria da Mendaurrera egiten dena

narekin eta hirugarrenik  
aurrekontuei buruzko mo-  
zioa ere onartu zen.

### Kirol elkarteak

Baztan, Malerreka,  
Leitzaran eta Bortzirietako

herriak biltzen dituen kirol  
elkartean sartzea erabaki  
zuen Iturengo udalak.

Iturengo ordezkaria  
Pedro Mindegia. Ordezkoa  
Jose M<sup>a</sup> Gorosterrazu.

ZUBIETA

## Jendez bete zaigu herria bapatean

JUAINAS

Udako giroten ariko  
bagina gisa, herria azke-  
neko astetan bete zaigu. Bi  
modu ezberdinez. Dagoe-  
neko akanpada finkoko  
tokia den Montero ijitoz,  
"jitoerri" titulua berrindar-  
tu nahian balira alde ba-  
tetik, granja bera lurrera  
datorrelarik. Herriko  
kanpoaldean hau. Ostala-  
riek berriz, haur, neska,  
mutiko, txandaka dakar-  
kite Iruñea eta alderdi hor-  
tatik, bapatean plaza "a  
tope" jarriz. Hauek herri

erdi erdian. Jitok, kanpotar  
eta bertakoak plazan arit-  
zen dire, batzutan lagun,  
hurrengoan etsai, beti be-  
zala. Baliteke modu hortan,  
azken boladan hainbeste  
kezkatzen gaituen herri  
hustutzea geldiaraztea.  
Euskaldunduz gero!! Es-  
kolan bertan akaso? Zubi-  
tar haurretatik %40ak  
kanpora jotzen duenez  
gero, kanpokoak beharko  
herriak iraun dezan.

*Azkeneko asteotan herri  
bazterrak jendez bete dira*





## Apostu mundiala hauteskunde egunean

Aizkolariak bikoteka eta bakarka arituko dira eta arpanlariak bikoreka

PATXI OTXANDORENA

Ekainaren 6an, hauteskundeaz gain, herri kirol apostu bikaina izanen da Labaiengo plazan zenbait herritarren artean.

Eguerdiko 12,30etan hasita, Jacinto Etxekolonea eta Tito Etxeberriak osatutako bikoteak kanaerdiko hamar enbor moztu behar-ko dituzte aizkoraz. Aldi berean, Pedro Telletxeak eta Jose Luis Etxeberriak,

hogei ebakialdi eman behar-ko dizkiote arpanarekin kanaerdiko enborrari.

Azkenik, apostuan parte hartuko duen bertze kirolaria, Jose Luis Telletxea aizkolaria izanen da. Honen, bakarka kana beteko enbor bat moztu behar-ko du aizkoraz.

Guztiak batera hasiko dira, nork bere lana lehen bete. Igande eguerdia ongi pasatzeko aukera ederra izanen dugu, dudikabe.



Apostu berri bat izanen da hilaren 6an Labaiengo plazan

### ZURE OSASUNA ETA EDERTASUNAREN ZERBITZURA

Osasun fisikoa eta sikikoa tratamendu naturalekin

•••

Bizkarrezurreko arazoak

•••

Zelulitisa eta loditasunaren kontrako tratamendua

•••



Jean Paul Bouchet  
Doktorea

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE

BEINTZAKO OSTATUA

Tfnoa: 45 00 14

BEINTZA LABAIEN

IRAGARKI HAU 5.500 ETXETAN SARTU DA

ZUREA ERE SARTUKO DA PUBLIZITERAKO

Itipi-ttapa ERABILIZ GERO

ARITZA  
MENDI LANAK

- Plantazioak
- Mendi garbiketak
- Kimatzeak
- Zerrakurak...

**Presupuestoak konpromisorik gabe**

Tfno: 634008 eta 627608  
Plumenborda baserria-ARANTZA

## Lorpen gehiago eskuratzeko



EA + EUE  
Hitzeko Pertsonak

GOIZUETA

## Nafarroako sokatira txapelketan goizuetarrak partaide

Lehen Herri Olinpiada arrakastaz burutu zen

ESTEBAN AROZENA

Gure herrian inoiz tradizioz izan ez duen kirol mota bat bapatean modan jarri dela esan genezake: sokatira. Iazko festetan gazte koafrila batek erdi inprobisaturiko inizatibak jarraipen ezin hobea izan du, eta hainbat hilabetetako entrenamendu gogorren ondoren, maiatzaren 16az geroztik Nafarroako txapelketaren 2. kategorian dugu Goizuetako Artzuri beste herri eta auzo ezberdineko bost taldekin lehian. Orain arte goizuetarrak herritik kanpo jokatu beharrean aurkitu badira ere, datorren larunbatean,



Lehen Herri Olinpiadan gazte koadrila askok parte hartu zuten

arratsaldeko 7etatik aurrera etxean tiratzeko aukera izanen dute txapelketaren laugarren jardunaldian. 640 kilotan, Txantrea, Berriozar, Donibane, Uitz-Gorriti eta Alli-Arruiz-Aldaz

taldeak izango dira Artzuriren etsai. 600 kilotan aldiz, Txantrea, Berriozar A, Berriozar B, Auritz eta Etxauri lehiatuko dira goizuetarren kontra.

Herri kirolaren mun-

duan segituz, esan arrakasta haundia izan zuela Umore Onak antolatutako **lehen herri Olinpiadak**. Goiz eta arratsaldez burututako borroka gogor baten ondoren, Andoni Etxenike, Mikel Elizegi, Antton Rodriguez, Aitor Apezetxea, Juan Tomasena eta M<sup>a</sup> Jose Narbartek osatzen zuten taldea suertatu zen garaile.

Ekainaren 5ean bada beste ikuskizun bat gure herrian ikusteko aukera, gaueko 11etatik aurrera **“Kojon Prieto y los Hualjotes”** taldeak emanaldi bat eskeiniko baitu ‘Artea eta Kultura’ kanpainaren barnean.

ARESO

## Santa Kruzerako ibilaldiak 70 bat pertsona bildu zituen

JUANA MARI SAIZAR

Santa Kruzeko ibilaldia ospatu zen urtero bezala. Eguraldi ezin hobea eta horregatik jende asko animatu zen, 70 lagun gutxi gora behera. Bidean «Viacrucis» eta bukaeran meza motz bat. Ermita oso polita zegoen, ondo garbitua eta gainera dena pintatua. Gero eta gehiago ikusten da jendearen borondatea eta ahaleginak festa honek garrantzi handiagoa izan dezan.

### Lehenengo jaunartzea

Lehenengo jaunartzea hartu dute aurten hiru mutikok: Igor Arraiaga, Jokin Barandarin eta Domingo Zubillagak. Meza berezia izan genuen, jende askorekin. Aipagarriena Kari katekistaren lana ume hauen prestaketa dela eta, ederki antolatu baitzuen.

Bi dantzarik, Jon eta Jaionek, beren debuta egin zuten aureskua dantzatzuz.



Santa Kruzera jende ugari joan zen aurten ere

Artixboa

## Argazki "rally-a" ekainaren 13an

Plazaola aldizkariaren azala egiteko ere deialdia zabaldu dute

JOSEBA AZPIROZ

Udaletxea eta Aurreren laguntzarekin ekainaren 13rako argazki "rally" bat antolatu da. Egun horretan, goizeko 10etan Aurreran bilduko dira partaide guztiak eta banaka, binaka edo taldeka Leitzako zokoei argazkiak aterako dizkiete. Partaide bakoitzari koloretako argazki karrete bat emango diote eta hauek errebelatzeaz antolatzaileak arduratuko dira. Ekainaren 27an argazki guztiak erakusketa bat egingo da eta bertan, epai mahai batek aukeratuko duen "rallyaren" irabazleari, 10.000 pezetako saria emango diote, ondoren partaide guztientzat hamaitakoa izango delarik. Argazkiak, antolatzaileen-tzat geldituko dira.

### Plazaola aldizkariaren azala

Plazaola Leitzako aldizkariaren azala egiteko deialdia egin dute. Lehiaketaren gaia Leitzako festak dira eta bertako jendeak soilik har dezake parte, bakoitzak gehienez bi lan aurkeztuz. Kartelak 2zmko



Zerk elkartzen ditu leitzar hauek? Leitzako euskal irratia nahi dutela!!!

listoi batez inguratuak aurkeztuko dira eta gehienez 50x60 zm.koak izango dira eta 4 koloretan. Lanetan honako testu hau agertuko da: *Leitza 93 - Tiburtzio Donearen Festak - 15. zenbakia*. Irabazleari Tiburtzio donearen egunean 20.000 pztako saria emango diote eta kartela Aurrerentzat geldituko da. Lan guztiak erakusketa bat egingo da. Kartelaren atzekaldean izenburua edo deitura jarri beharko da eta horrekin, izen berdinez sinatutako kartazal bat aurkeztuko da, eta barruan egilearen izen-abi-



Kultur Asteak izugarrizko jendetza mugiarazi du

zenak, helbidea eta telefonoa idatziko dira. Epea ekainaren 30ean bukatuko da eta

lanak Aurreran aurkeztu behar dira, aurretik 610882 telefonora deituaz.

**SAGASTI**  
**Jatetxea**

Bokadilo goxoak eta  
paregabeko bazkariak

Tfnoa: 610637 - LEITZA

*Lorea eta Idoria*

ileapaindegia

Tfnoa: 610907 - LEITZA



KRISTALAK  
PORTALAK  
ESKAILERAK

Tfnoa: 630557 - BERA



BAZTAN

**Bularretako minbiziaren prebentzio kanpaina**

Hurrengo asteotan egingen da eta 45 eta 65 urte bitartekoei zuzendurik dago bereziki

J.M.I.

Ekainaren 10etik aintzina, duela bi urte egin zen kanpaina berdinari segida emanen zaio Baztanaldean.

Berrogeitabortz eta hirutanogeitabortz urte bitarteko emakumezkoak dira batez ere errebisionen honetara deituak, iduri duenez arrisku mailarik haundiena dutenak hauek baitira.

Osasun Zentrutik adierazi digutenez, adin horretan sartzen diren andre guzietan karta bat bidali zaie zein egunetan tokatzen zaien eta errebisio pasatzera gateko zer egin behar duten erranez.

**Errebisioak Elizondoko Merkatu Plazaren inguruan**

bereziki horretarako prestatuak dagoen autobus batean egingen dira errebisioak. Dena dela norbaitek dudaren bat baldin badu edo ez bazaio karta ailegatu, komeni da Iruñako 109310 telefonora deitzea, kanpaina guzia handik bideratzen baita. Minbiziaren prebentziorako kanpaina izanik, erran beharrik ez zein inportantea den errebisioa egitea.



Hirugarren mailara igotzea lortu ondoren, orain bidai baterako dirua lortu nahian dabilta C.D. Baztaneko jokalaria. Horretarako zenbait herrietako bestetan ostatua paratu eta larunbat honetarako dantzaldia antolatatu dute Elizondon

ONDIKOL

**ttipi-flash**

- **C.D. Baztaneko** jokalariek ekainaren 5ean Elizondon dantzaldia antolatu dute Arkaitz taldearekin eta gaueko 12etatik aintzina.
- **Baztango** Kirol Taldeko nesken kadete taldea Nafarroako txapelketa galditu da eta Mallorcara joan da Kirol Jokuen Espainako Txapelketan parte hartzeko.
- **Iratxe** Kontsumitzaile Elkarteak hilabeteko lehen eta hirugarren orztiralean etorriko dira.

**San Isidro egunean elkartasun bazkaria egin zuten nekazariak**

IXABEL ALEMAN

Amaiurko nekazariak urteroko elkartasun bazkaria egin zuten San Isidro patroia egunean. Aurtengoan eguraldi ona suertatu zen, eta batzuk belarretan lana zutela eta, ez zuten bazkaria gaterik izan.

Halere, Mendialde jate-txean 35 elkartu ziren eta bai ederki aski pasatu ere.



Mendialde Jatetxean 35 amaiurtar elkartu ziren bazkaltzera

**IPINGI**

ZATOZ ETA IKUSI  
Santiago 88, Tfnoa: 580939  
ELIZONDO

**Udako arropak • indiar estilokoak  
moda-modako bainu jantziak • Bitxiak**

**KASINO OSTATUA**

Jaime Urrutia 10 - ELIZONDO



## Heldu den astean Almandozko bestak

Igandean bederatzzi sokatira talde arituko dira

PABLO MENDIBURU

Iruritako besten segidan Berroetakoak etorri ziren eta hauen ondotik Almandozkoei ailegatuko zaie txanda. Corpus Christi bezperan hasi eta igandera artio, nahi duenak behinpin izanen du animazio franko.

**Asteakenean**, eguerdiko letan suziriak eta arratseko 9etan kalejira. 10etan afaria gazteentzat Txoko Zahar elkartearen ondotik dantzaldia Modestorekin.

**Ortzegunean**, Corpus Christi egunean, goizeko 7.30etan egunsenti kantak Onenak koralarekin. 11.30etan meza eta 12.30 hameketakoa frontoian.



Tiraldi ederrak ikusi ahal izanen dira ekainaren 13an Almandozko pilotalekuan.

Gaueko 10etan kalderetea herrikoendako Manolo Arozena, Bittor Elizagoien eta Argiñarena bertsolariekin. 11etan Mozorro txapelketa eta dantzaldia Modestorekin.

**Ortzilerian**, goizeko

11.30etan mus txapelketa, 2etan Zikiro Jatea frontoian, arratsalde eta gauez dantzaldia Paraiso taldearekin.

**Larunbatean**, 11etan haurrendako txotxongiloak eta 4etan Plater Tiroketa. Dantzaldia Basajaun tal-

### W ttipi-flash

Garikoitz eta Asier Atxa, Iñaki eta Jabier Sanzberro eta Xabier Alzugaraik egingen dute lehendabiziko jaunartzea Almandozen ekainaren 13an.

Lehen ohitura zen bezala, maiatzeko igande gutzitan Zigako neska gazteak aingeruz jantzirik amabirjinari loreak eskeini dizkiote.

dearekin.

**Igandean**, 11.30etan meza eta 5etan sokatira: Amaiur A eta B, Sunbilla, Bera, Erratzu, Ultzama, Basaburua Baztan, Lesaka eta Berriozar. Dantzaldia Saioa taldearekin.



# SOULE

GURUTZE eta HILARRIAK

☎ 45 30 38 ARIZKUN - ☎ 12 35 72 IRUÑA

M<sup>re</sup> Dolores Mirana **TOPOGRAFA**  
**NEURKETAK • PLANOAK**  
 Lur neurketak  
 Luberriak  
 Plantazioak, etab.  
 Santiago 68, 3. Esk. ☎ 580143 • ELIZONDO

**JATETXEA**  
 Tfnoa.: 580101  
 Santiago 1  
 ELIZONDO  
**Galarza**

## ANGEL TRANTXE ELEKTRIZISTA

- Instalazioak, berrikuntzak eta moldaketak
- Suteen detekzioa
- Su-hitzalgailuak edo extintoreak

Giltxaurdi 16 - 1. ezk. ☎ 452246 - **ELIZONDO**

**FZ**  
 FOTO ZALDUA  
**ZURE EZKONTZARAKO**  
**FOTO eta BIDEO**  
**Erreportai on bat**  
 ELIZONDO ☎ 580491  
 DONEZTEBE ☎ 450364  
 MARKOEN TAILERRA eta zure  
 karreteak ORDU BATEZ REBELATZEN  
 DITUGU "FUJI" kalitatearekin.

URDAZUBI

Umore ederrean pasatu dira herriko bestak

Salbatore egunean, Leorlasko leze-sarreran egindako aterpea inauguratu zen

ALIZIA OLAIZOLA

Asteazken arratsaldean hasi ziren. Arratsean afaria Indiano-Baitan hasiera ona emateko beste eta gero dantzaldia Modestorekin. Zoritxarrez Davidek ezin izan ditu hemen pasatu bestak, lehenbiziko egunean joan behar izan baitzuen Canariasetar soldaduska egiterat. Salbatore egunean, meza nagusia eta aperitifa Ainhoako klikak alaiturik. Atsulai taldeko arduradunek, pastel postu bat eman zuten. Arratsaldean pilota partiduak eta ondotik, Atsulai dantza taldea izan zen. Ortziral goizean diana Dantxarinearako auzoan eta herrian barna Modestoren



Leorlasen turistendako egin den aterpe berriaren inauguraziora Nafarroako Gobernuako eta inguruko herrietako agintari andana etorri ziren

konpainian.

Arratsaldean haur joakoak, Pumuki taldearekin eta txokolatada izan zen. Larunbat goizean, pilota partidak palaz eta arratsean

zikiro-jatea eta talo egileak ere eman zuten beren talo postua. Igande arratsaldean, sokatira. Ondotik Atsulaiko dantzariak eta Lizaso eta Murua bertsolariak, Amo-

rena gai-jartzaile zutela.

Errifaren zozketa

Lehen saria aste bateko bi-daia bi lagunendako Torremolinosea: 10571 zenbakiari tokatu zaio eta Zubiondoan saldua da. 2. saria, mendi bizikleta bat: 13725ari tokatu zaio, Armuian saldua eta 3. saria kaja sorpresa bat: 14968ari, Angela Barrenetxek saldua. Hau idazterakoan, jabeak nor diren ez da ezagutzen. Bertzalde, urtero egiten den motocrossa aurten ez da ekainan egingen, motoristak okupatuak baitaude.

Musika aurten, Izadi, Drindots eta Modestoren eskutik izan da.

SAN MARTIN LANBIDE ESKOLA

Tfnoa: 59 20 06 – Oronotz-Mugairi



INGELES IKASTAROA UZTAILAN

Bertze urtetan bezala, aurten ere, ingeles ikastaroa uztailaren 5etik 30era goizez 9,15etatik 13,45 orduetara Irakasle "natiboekin"

APUNTATZEKO deitu 592006 Tfnoa

## Frontoia uda huntan inauguratuko da seguruenik

Nafarroako Gobernuari 10-12 milioiko dirulaguntza eskatu zaio

KORO eta MARGARI

1993 urte hasierarekin batera, hasiera eman zitzaion baita pilotaleku berria egiteko lanei.

Orain arte desmontea, zimenduak eta aintzin-ezker paretak eginak dire, ekainako gaupasatik aterako den diruarekin ordaintzeko.

10-12 milioiko dirulaguntza

Baina hementik aintzina eta lanak segi dezaten,

maiatzaren 13an udalbatza eta gazteen artean egindako bilera batean, Nafarroako Gobernuari hamar eta hamabi milioi arteko dirulaguntza eskatzea erabaki zen. Gazteen eta udalbatzaren intentzioa, frontoia uda huntan bertan inauguratzea da.

Bilera honetan baita, gaupasan lezeetan paratzen den ostatuaz gain, herriko plazan bertze bat jartzea ere erabaki zen.



Uda huntan frontoi berria jokatzeko aukera izanen da seguraski

**Eskeintzen ditugun**

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013  
**ELIZONDO**



ERLOJU eta BITXI DENDA

**ARRIETA**

KIROL TROFEOAK  
Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



**ARLA**  
**ARDOTEGIA**

Ardo botilatua eta botilatu gabea  
Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66  
**ELIZONDO**

**MANUEL MARTIN**  
Barnekalderako dekorazio dendak  
Zerbitzu hauek eskeintzen dizkizue

- Era guztietako gortinak, kamilla bolanteak, edredoiak eta maindireak.
- Alfonbrak, bertakoak eta inportaziokoak Nepalekoak, Turkiakoak, Pertiakoak, Txinakoak...

*Bertan egiten ditugu produktu guztiak*

**25 urtetako esperientzia**

**Bisita gaitzazu**

Serapio Mugika 8  
Tfnoa: 943-616603  
**IRUN**



Pasajes 3  
Tfnoa: 943-511598  
**ERRETERIA**

**MENDI**  
**OSTATUA**

Santiago 25 - ☎ 580313  
**ELIZONDO**

**BAZTAN**  
**FUNERARIA**

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA  
SALMENTA • TRASLADOAK  
Jaime Urrutia 53 ELIZONDO  
Tfnoak: 580924-580814-580373

**MENDIALDE Jatetxea**



Etxeko gasnak saltzen ditugu  
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan  
**AMAIUR Tfnoa: 45 30 60**

ARROPA DENDA



**CERVANTES**  
**HELVETIA SEGUROS**



Era guztietako aseguroak  
Eska itzazu aurrekontuak  
Juana M. Urrutia

SARA

**Gaineko eskola publikoan, elebitasunak 10 urte**

Maiatzaren hamabortzean ospatu zuten besta goxo batekin

AÑA MARI CURUTCHET

Maiatzaren hamabortzean, gaineko eskola publikoak elebitasunaren hamar urteak ospatu ditu.

Besta hori, arras goxoki iragan da. Hor ziren Sarako lehen ikasle elebidunak, burasoak, apeza, lagunak bai eta ere hautetsi batzuk: auzapez, deputatu, ministro.

Atseginekin eskertu dugu M.K. Garmendia, Eusko Jaurlaritzak eskaini liburu metarentzat: aurten eraiki liburutegi elebiduneari toki egokia daukate!!!

Urte muga hori ospatzeko, eskolako paretetan tintak egin dira:

Geografi arloan, Sarako ingurumen ederra, mendi,



Gaineko eskolakoak bertsu kantari, Sarako mendi eta lepoak agertzen dituen tintaren aintzinean

lepo: bere izen eta alturekin.

Matematika sailan: araberatasuna, eskelak, eskual etxean eta Sarako plazan.

Euskal mitologian diren pertsonai batzu. Gelak denei idekiak ziren.

Maiatzak hamabortza eskolan da besta hamar urtez eskuaraz zer gauza pollita Saran bide hoberik ezin zaiken goaita hizkuntza dezagula ibili ta maíta.

Gaur besta baita errango nuke agur entzule maitea aski kontent naiz eskola huntan elebidun izaitea bainan triste naiz maiatzan gara Neretzat azken urtea Seigarrenerat gatea baino hobe hemen egoitea.

**LUR BERRI**



coopérative agricole  
64310 SARA  
Tfnoa: 59 54 20 13

**IDEKIDURAK:**  
Goiz guziz (astelehenetan salbu) 9etatik 12etara  
eta astelehen arratsaldez 14etatik 18etara

**ALBAITARITZA PRODUKTOAK**  
**ZORIONGARRIAK-ALIMENTA ETA ARTOHAZIA**

**OSKORRI LIBURUDENDA**

Petrinea Tfnoa.: 592245  
ORONOTZ-MUGAIRI



**muñeca de trapo**

**GIZONEZKOEN MODA**

**EMAKUMEZKOEN MODA**

**BLAK, IRUNGO LUIS MARIANON**

*Beatriz Lurrindenda*

Garantia osoko produktuak  
aurkituko dituzu

Perfumeak, Kosmetikoak, Bitxiak, Poltsoak, Oparitzeko artikulua

Santiago 53, Tfnoa: 58 02 83 - ELIZONDO



## EZKONTZAK

**Leandro Pikabea Etxeberria** eta **Maria Delia Taberna Martinez**, Berakoak, maiatzaren 5ean.

**David J. Ainziburu Iturri** eta **Txaro Zabala Gonzalez**, Iruña eta Doneztebekoa, maiatzaren 22an.

**Jose Ramon Igiñiz Peluaga** eta **Begoña Fagoaga Lopez**, Irun eta Lesakakoa, maiatzaren 15ean.

**Victor Goikoetxea Barandarain** eta **Elena Rodriguez Roteta**, Areso eta Donostiakoa, maiatzaren 15ean.

**Consuelo Oiartzabal Larraburu** eta **Ramon Agirre Aldaraborda**, Doneztebe eta Irungoa, maiatzaren 22an.

**Juan Maria Lerretxea Agesta** eta **M<sup>a</sup> Lourdes Altugarai Lekuona**, Arantza eta Lesakakoa, maiatzaren 15ean.

**Elena Etxarte Martinez** eta **Jose Canabal Unziti**, Igantzi eta Gareskoa, maiatzaren 15ean.

## JAIOTZAK

**Iñaki Vicente Dagerre**, Iruritakoa, maiatzaren 5ean.

**Mikel Jimenez Arriada**, Iruritakoa, maiatzaren 7an.

**Laura Jaen Perez**, Elizondokoa, maiatzaren 7an.

**Haizea Otermin Zabaleta**, Elizondokoa, maiatzaren 19an.

**Xabier Iparragirre Zabaleta**, Leitzan, maiatzaren 20an.

**Naroa Fernandez Zabaleta**, Leitzan, maiatzaren 21ean.

**Egoitz Zabaleta Alduntzin**, Leitzan, maiatzaren 20ean.

**Aintzane Pikabea Martin**, Lesakan, maiatzaren 20an.

**Mayi Arriola Agirretxe**, Lesakan, maiatzaren 21ean.

## HERIOTZAK

**Ignacio Juanikotena Mortalena**, Lekarotzen, maiatzaren 13an, 65 urte.

**Jeronima Iparrea Apezetxea**, Elizondon, maiatzaren 19an, 92 urte.

**Dominica Etxandi Etxandi**, Elbeten, maiatzaren 21ean, 101 urte.

**Juana Agustina Etxenike Arraztoa**, Iruritan, maiatzaren 20an, 90 urte.

**Jean Olhagaray**, Saran, maiatzaren 18an, 70 urte.

**Kattalin Anzizar**, Saran, maiatzaren 12an, 98 urte.

**Luis Goienetxe Iturriria**, Urdazubin, maiatzaren 23an, 73 urte.

**Genaro Ozkoidi Usandizaga**, Beran, maiatzaren 18an, 80 urte.

**M<sup>a</sup> Pilar Hidalgo Lopez**, Narbarren, maiatzaren 16an, 69 urte.

## 40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

**13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,**

**2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,**

**4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegia bat,**


**2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,**  
**dekorazio denda bat, supermerkatu bat,**

**aseguro etxe bat, ileapaindegia mixto bat, drogeria bat,**

**bidai agentzia bat, PVCko nahiz zurezko leiho eta ateak,**  
**hizkuntza akademia bat, moketak eta pinturak, etxe saltzaile bat...**

*Denetarik gauzarik hoberenak.*

*Irun erdi-erdian. Parkina eta guzi.*





### **Erreforma ikasketak**

#### **BATXILERGO BEREZIAK**

##### **Helburua:**

- Unibertsitatean sartzeko prestatu
- Lanerako prestatzea, moduloekin konplementatuz gero.

Bi urtez egiten dira.

##### **Modalitateak:**

- Administrazio eta Gestioa (BAG)
- Tekniko Industriala (BTI)

#### **LANBIDE MODULOAK**

Ikasketak eta lanaren arteko zubiaren papera betetzen dute. Gazteak lan merkatuan sartzen laguntzen dute eta

gazteak ez ezik, helduak ere, birziklatzen eta bere heziketan aurreratzen laguntzen dutelarik.

#### **2. Maila. Teknikari Laguntzaileak**

- Makina-erreminten operatzailea
- Adm. eta Gestioan laguntzailea

#### **3. Maila. Teknikari Ertainak**

- Enpresa Administrazioa.

### **Lanbide Heziketa II**

- Administrari Adarra (5.)
- Metal Adarra (4.5.)

**INFORMAZIOA eta MATRIKULAK, UZTAILAN**

## Baztan futbol taldea: Berriz ere Nafarroako hirugarren mailara

*Denboraldi bikain baten ondoren lortu dute mailaz igotzea*



Baztandarrak Preferenten lehen postua eskuratu dute aurten

ONDIKOL

Baztan futbol taldeak Nafarroako Preferente mailako lehen postua eskuratu zuen matematikoki maiazaren 23an, oraindik jokatzeko bi partidu falta zituenean. Modu honetara, datorren urtean hirugarren mailan jokatzeko aukera izanen dute. 75 urtetako historia luzean, baztandarrak maila honetara ailegatzaren bigarren aldia da.

Baztanek izugarriko denboraldia egin du aurten goan. Lehen itzuli osoan - 21. ihardunaldia artio, zehazki errateko - ez zuen partidurik galdu eta bederatzita puntuko abantaila izatera iritsi zen. Alde hori dela medio, bigarren itzulian

“lasaiago” ibili dira, baina gibekeko aldetik ez dute izan arrisku haundiegirik.

Zerbait azpimarratzekoan, taldearen gaztetasuna, duela bizpahiru urte hirugarren mailatik jeisterakoan, erabat berritu bait zen.



ONDIKOL

### Javier Amiano: «Mailaz igotzeko klabea guzian konpromezuan egon da»

Javier Amiano da azken urteotan maila haundiko talde bat osatzea lortu duen entrenatzailea. Bere ustez, aurtengoan mailaz igotzeko klabea “denboraldi hasieratik, jendeak, jokalaria eta guztiok konpromezu bat hartu dugu eta fundamento pixko bat izan dugu, bestetan kuidatuz adibidez, aintzineko urteetan izan ez duguna”. Amianok dioenez, “mailaz igotzea posible zela sinistea eta nahi izatea izan da

aurtengo sekretoá”.

Datorren urterako asmoei dagokienez, gauzak ez direla batere errexak izanen dio entrenatzaileak: “partido bakoitza final bat izanen da, eta lehenbiziko minututik bukaera arte konzentrazioa mantendu beharko dugu maila honetan”. Halere, konfidantza badu taldean: “Daukagun ekipoarekin zortzi lehenbizikoan artean egon gaitezke, baina hori bai, fin eta serio lan eginez”.

#### BAZTAN-ERREKA LAXOA Txapelketa

##### Azken emaitzak

- **Maiatzaren 16an**  
Elizondo, 9 - Doneztebe B, 5.  
Doneztebe A, 9 - Arraioz, 0.  
Oitz, 9 - Doneztebe C, 5.  
Iurita 9, - Donamaria, 2.
  - **Maiatzaren 23an**  
Arraioz, 2 - Doneztebe B, 9.  
Donamaria, 2 - Oitz, 9.
- ##### Hurrengo jardunaldia
- **Ekainaren 6an**  
Doneztebe B - Elizondo (12)  
Arraioz-Doneztebe A (11'30)  
Doneztebe C - Oitz (5)  
Donamaria - Iurita (12)

## Kontsumitzaileen eskubideen defentsan

*'Iratxe' kontsumitzaile Elkarteak Baztanen eta Leitza-  
n eskeiniko ditu bere zerbitzuak hilabetero bi egunez.*

*Kontsumoaren kultura  
hobetzea da Leitza eta  
Baztanen funtzionatzen  
hasi berria den elkarte  
honen helburua.*

*Zentzu honetan,  
'elkartearen experien-  
tzia kontsumitzaileen  
esku jartzeko asmoa  
agertu dute, noizbait  
erreklamazioaren bat  
egin beharrean suerta-  
tuko balitz kondiziorik  
egokienetan egin ahal  
izateko'.*

*Baztango Udalak eta  
Leitzako Udalak Iratxe  
elkartearekin izenpetu  
berri duten elkarlane-  
rako komenioaren  
arabera, bi*

*udalerriotako herritar  
guziak elkartearen  
zerbitzuak erabil  
ditzakete horretarako  
deus ordaindu gabe.*

*Gainerako  
herrietakoek,  
zoritarrez, bazkide  
edo sozio egin beharko  
dute lehenik  
kontsumitzaile elkarte  
honetako zerbitzuak  
probetxatzekotan.*



*Erreklamazio gehienak kotxe tailerretatik eta etxebizitzaren esparrutik sortzen dira*

**H**erri ttiketako kontsumitzaileok ez omen gaude ohituta kontsumitzaile bezala ditugun eskubideak defenditzera. Halaxe dio 'Iratxe' kontsumitzaile elkartearen zuzendari ordea den Jose Miguel Flandesek.

Zentzu horretan Iratxe elkarteak prest daude kontsumitzaileak erreklamazio bat egiteko behar duen informazio guziaz es-

keintzeko eta erreklamazioak bideratzeko behar diren teknikoak eta abokatuak bazkideen esku jartzeko.

1979an sortu zen elkarte honek 25.000 bazkide ditu orain Nafarroa osoan. Gaur egun Iruña, Lizarra, Tuter, Burlata, Altsasua, Korella, Baztan, Leitza eta Azkoienen eskeintzen ditu bere zerbitzuak, hiri jendetsuenetan egunero eta gainerakoetan hilabetero bi egunez. Azkeneko hauetan furgoneta batean atenditzen

dute jendea, 'bulego mugikorrean', beraiek deitzen duten bezala.

### **Leitza eta Elizondon**

**hilabetero bi egunez**  
Baztandarrek hilabete bakoitzeko lehen eta hirugarren ortziraletan, goizeko 10etatik eguerdiko 1ak artio Elizondon izanen dute elkarte honetako tekniko bat. Zerbitzua erabili nahi duenaren konfidentzialtasuna gordetzeko, furgonetara jo



beharrean Baztango Udalak Balleko Etxean bertan bulego bat jarri du zeregin horretarako.

Leitzan berriz, hilabete bakoitzeko lehen eta hirugarren asteartetan egonen dira Iratxeakoak. Ordutegia arratsaldeko 4etatik 7etara luzatuko da eta Udaletxean bertan izanen dituzue.

## Gehien erreklamatzeko dena

Kontsumoaren edozein esparrutik erreklamazioak sortzen badira ere, gehienak kotxe tailerretatik eta etxebizitzaren inguruan sortzen omen dira.

Hortaz gainera, erreklamazio gehienak bulegotik bertatik moldatzea lortzen omen dute, eta horrela ez balitz, Iratxeako abokaturen batek arazoa bere esku hartu



Normalean erreklamazio gehienak bide judizialera jo gabe moldatzen dira.

eta bide judizialek moldatzera saiaturiko litzateke. Dena dela, ekainaren 17an sortuko da Nafarroan orain arte esistitzen ez zen

erakunde berri bat; Nafarroako Junta Arbitrala, alegia. Bere zeregina bi aldeak diotena entzundakoan auzia erabakitzea izanen da. Era-

baki horrek balio judiziala izanen du eta debalde eskeiniko da.

Joxemanuel IRIGOIEN

Jose Miguel Flandes, 'Iratxe' elkartearen zuzendari-ordea:

## «Kontsumitzailea hezi, informatu eta defenditzea da gure helburua»



► Zer eskeintzen du Iratxe Kontsumitzaile Elkarteak?

► Kontsumitzaileak behar duen informazioa eta bere eskubideak defenditzeko behar dituen bitartekoak.

► Zer egin behar da zuen zerbitzua aprobetxatzeko?

► Lehenik erreklamatu

nahi duenak elkartearen sozio egin behar du, bertzenaz ez zaio atendituko. Hemen Baztanen eta Leitzan ez da

beharrezkoa banaka sozio egitea. Bi udalek eta 'Iratxe' ren artean izenpetutako komenioak erreklamazioak debalde atenditzeko aukera ematen die baztandarrei eta leitzarrei.

### «Leitzar eta Baztandarrek debalde aprobetxatu ahal dituzte gure zerbitzuak»

► Zein da normalean erreklamazio batekin segitzen den prozesua?

► Normalean bide judiziala

lean sartu gabe moldatzera saiaturen gara. Gure bulegoetatik bitartekari lana egiten dugu, lehenik eta behin bi aldeen arteko arazoa moldatzen saiatuz. Bide horrek emaitza onik emango ez balu, gure abokatu batek arazoa bide judizialera eramanez luke.

Dena dela hilabete honetan Nafarroako 'Junta Arbitrala' jarriko da martxan eta arras erreminta baliagarria izanen da kontsumitzaileontzat.

Angel Trantxe, Baztango Mendigoizaleak elkarteko kidea

## «Gailurrera iristean sentitzen duzuna ezin da hitzez esplikatu»



*Inguru menditsu honetan nor ez da noizbait Mendaur, Legate edo Ekaitzara igo? Bertze batzuk astero astero egiten dituzte horrelako ibilaldiak eta zenbaite-tan altura haundiko mendiak igotzen dituzte. Afizio honen berri izateko Angel Trantxe-rengana jo dugu.*

**ttipi-ttapa.** *Nola sortu zen Baztango Mendigoizaleak?*

**Angel Trantxe.** Hasiera batean C.D. Baztanen Mendi saila zegoen, baina diru aldetik ez zuen laguntza haundirik izaten. Gehiena bertze sailek eramaten zuten. Berez club bat ez izaterakoan, federazio kontuak Sunbillako Ulibeltzak elkartearekin egiten genituen. Horregatik, club bat sortzeko erran ziguten Iru-

ñan. Guzti hau 1988an izan zen. Cluba sortu ondoren ohizko irteerak egiten hasi ginen. Ibilbide guziak hemen inguruan egiten genituen. Orduan 20 bat federatu izanen ziren eta gaur egun 60tik goiti dira.

**ttipi-ttapa.** *Zein dira urtean zehar egiten dituzuen ekitaldiak?*

**Angel Trantxe.** Club mailan omenaldia eskeintzen zaio Eguberritan Gerardo Plazari Legateko

gurutzean duen monolitoan eta bertze omenaldia Pello Etxart eta Ramon Jauregiri Auzako gainean, Baztandarren Biltzarrekoekin batera. Hilabetearen behin gaztetxoekin egiten dugu irteera. Normalean berrogeitamar bat neska-mutiko ateratzen dira gurekin. Iaz 'rokodromo' bat ere egin genuen Elizondoko konzentrazioaren gibelesko aldean.

**ttipi-ttapa.** *Zein izan da*

*Baztango Mendigoizaleak elkarteko kide batek igotako mendirik altuena?*

**Angel Trantxe.** Normalean, hemendik kanpo egiten ditugun mendiak maila pertsonalean egiten dira, nahiz eta Baztango Mendigoizalekoak izan. Ni Alpetan, Piriniotan egon naiz... bi alditan Mont Blanc-en eta Cervinora igotzen saiatu nintzen Pello Etxartekin batera. Bera igozen baina ni gibelean gelditu nintzen.

Halere, Baztanen mendizaletasuna beti izan bada ere, club mailan ez da deus haundirik egiten igandeko irteeretaz aparte. Adineko jendeak bere paseoak egiten ditu, baina bertzerik gabe. Jendeari bere gisara ibiltzea gustatzen zaio.



**«Hilabetean behin berrogeitamar bat neska-mutikorekin irteera egiten dugu»**



«Lagun aunitz egiten dira mendian, bizitza guzirako lagunak gainera»

**ttipi-ttapa.** *Mendi aktibitateaz gain, bertze ekitaldirik egiten duzue?*

**Angel Trantxe.** Horiek maila pertsonalean egiten dira, ez dago sekzio berezirik. Batzuk fondo eskia egiten dute, alpinoa ere bai... mendi bizikletarekin hasi da jende dexente... baina denak ere maila pertsonalean.

**ttipi-ttapa.** *Zer eskaintzen dio club batek mendizale bati?*

**Angel Trantxe.** Federatua egotean aseguro bat izaten duzu, mendian edozein istripu izanda babesa ematen dizuna. Txartela izateak baditu bere abantailak, baina ni zentzu horretan nahiko anarkikoa izan naiz.

**ttipi-ttapa.** *Zer dumendiak bertze kirolek ez dutena?*



«Mendia igotzerakoan aunitz miseria haundiak pasatzen dituzu, baina gailurrera iristerakoan satisfazio izugarria da»

**Angel Trantxe.** Lagun aunitz egiten dira, bizi guzirako lagunak gainera. Zergatik igotzen duzun mendia? ba, hordagoelako. Kirol egiteak, nahiz eta afizionatu maila izan, beti sakrifizioa suposatzen du. Mendi bat igotzen ari

zarenean aunitz miseria haundiak pasatzen dituzu baina gailurrera iristen zarenean... hori ezin da hitzez esplikatu. Atsegin pertsonala izugarria da.

Testua: AITOR AROZENA  
Argazkiak: Angel TRANTXE eta Belen ARRIBILLAGA



ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU 63 11 88 ☎

## Etxebizitzak

- **Pisua** konpartitzen da Lesakan. ☎ 580490.
- **Elizondon** 70 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 7.200.000 pzta. ☎ 581089 (9etatik aurrera).
- **Beran**, alokatzeko pisu baten bila nabil. ☎ 637382 (Gabriel).
- **Elizondon** pisu berri-tua salgai, 3 logela, jangela, bainua eta egurrez moblez-tatutako sukaldea. ☎ 581089.

## Lana

- **Perfumeria** - kosme-tika produktu naturalak sal-tzeko banatzaileak behar dira. ☎ 450287 (Mirari).
- **Narbarten** bizi diren bi anai gazte gipuzkoarrak (26-28 urte) edozein lan bi-latzen dute, edozein lekutan. Galdetu Ezkalon.
- **Elizondo** aldean lan egingo nuke, haurrak zain-tzen adibidez. Bestela in-ternu egongo banintz ere lan egingo nuke. ☎ 453294.

- **Leitzakoneskabatnaiz** eta herriko festetan lan egingo nuke, ahal bada Leitza inguruan. Bi urteko esperientzia daukat. ☎ 510303 Mila.

## Salerosketak

- **Katu pertsak** eta **trineo zakurrak** arraza gar-bikoak salgai. Prezio nego-ziagarria edo zerrikumeen-gatik aldatzen ditugu. Ezkalo (☎ 451518).
- **Labrantza** tresnak eta baserriko mobleak erosten ditut. Eskura ordaintzen dut. Ezkalo (☎ 451518).
- **Belar** higitzeko maki-na, traktorearentzat, KUN markakoak salgai. 3 metro-tako zabaleran lan egiten du. ☎ 580960.
- **Artzai** zakurrak salgai. ☎ 604624.
- **Akordeoi** ttikia, Vic-toria markakoa salgai. 120 bajo. ☎ 630298.
- **300 pikete** salgai, onak, gaztaina eta akaziarenak. ☎ 510132.

- Lau urtetako **aharea** salgai Igantzin. ☎ 637026.

- **Renault 5** berdea (NA-8098-L, 35.000 km.) salgai 300.000 pezetatan. ☎ 452363 (1,30-2,30 eta 9,30-10,30).

- **Kategorizko zakurku-meak** salgai, setter ingles arrazakoak. ☎ 514240.

- **KTM 250 cc** motoa salgai. Egoera onean. ☎ 631134.

- **Erremolke** bat saltzen da, luzera 3'15 m, zabalera 1,54 m. eta altuera 2 me-trokoa, nahi izanez gero. ☎ 619761.

## Denetarik

- **Artzain** zakurkumeak dohain Idirteko Bordan (Xantellerreka). Bera.
- **Eskubaloiko** bi porte-ria eta saskibaloiko saskiak eskuratu nahi genituzke. ☎ 451555 (Malerrekako eus-kalategia).
- **Pisu** bat osatzeko nes-ka bat behar dugu Burlatan. 93ko uztailatik 94ko uztai-lara. Oso ekonomikoa. ☎ 453174 edo 453344.

## Harremanak

- **Ongi etorria** Sarako Guy Lalanneri. Ez dugu etsituko. Saratar bat.
- **Oitzko** Bitorrentzat: maiatzaren 22an 25 urte be-tetzeagatik zorionak. Zure emazte eta semearen partez.
- **Itziar** Irisarriri, maiat-zaren 23an partez zorionak eta ongi pasa. Urdazubitik Alizia.
- **Labaiengo** Esther Etxeberriari, zorionak maiatzaren 4ean 20 urte bete bait zituen. Bere laguna A.G.
- **Goizuetako** Juan Jo-seri zorionak eta ongi pasa 19. urtebetetzea (ekainak 8). Oso mutil majoa zara. Lag-un baten partez.
- **Etxalarko** Rosario M.rentzat zorionak zure ur-tebetetzean eta kontuz be-renduko txanpainarekin. Karmen.
- **Oitzko** Jose Ramoneri zorionak zure urtebetetzean eta izan dadila aunitz urtez. Ia datorren urtean umore hobeagoa duzun, kanpoan ospatzeko. Maite zaitunak. Lourdes.



**TELLETXEA**  
**MOBLEAK**

## Moble erakusketa haundia

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten dtugu. Fabrikanteak gara.
- Haritz, gereziondo, gaztainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak.
- Tresillo eta tapizerietan aukera zabala
- Ordaintzeko errextasunak eta zure erosketengatik opari ona eramanen duzu

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - **DONEZTEBE**



## Zure nomina helbidera- tzeagatik

- ▶ 45 pieza dituen portzelanazko baxera
- ▶ 1.000.000 pta.ko aseguro bat
- ▶ Eta %7rainoko interesa Superlibretan

Eta gainera  
errenta  
aitorpena  
eginen dizugu



Pasa zaitetz gure  
bulegoetatik

  
CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA

- BERA •
- DONEZTEBE •
- LEITZA •
- LESAKA •



CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA

**Nominen helbideratzea**



# IRU LAGUNAK S.I.

## TAILERRAK

- ▷ KOTXE ETA KAMIOIEN TXAPA ETA PINTURA
- ▷ MEKANIKA
- ▷ «BANCADA UNIVERSAL» DELAKOA
- ▷ PINTURA KABINA
- ▷ KOTXE BERRIAK ETA ERABILIAK

**BEKO ERROTA Poligonoa, ☎ 637436 - LESAKA**



**JOSE LUIS ETXEGARAI**  
KONGRESURAKO HAUTAGAIA

**JOSE ANTONIO URBIOLA**  
SENATURAKO HAUTAGAIA

# Nafarroarekin

**EMAN**  
**BOTOA**



**EAJ**  
**PNV**